



Sari nagusia, Norvegiara

EPAIA ▶ Euskal kantua ongien interpretatu zuen Schola Cantorum abesbatzak; folklore eta polifonia sailean ere lehen saria lortu du

SARIAK ▶ Alemaniako Calmus Vocal taldeak hiru sari lortu ditu, ikus-entzuleena barne; haurretan, Kanadakoak izan dira irabazle ▶ 2-3



Sari banaketaren amaieran, Norvegiako Schola Cantorum-eko zuzendaria eta abeslariak txapelak buruan eta sariak eskuan, lehiaketako garaipenak ospatzen atzo. IÑIGO TERRADILLOS

LIZARTZA ▶

Mujika: «Idazleak jai du kate komertzialean sartzen ez bada»

Idazleak «kate horretan sartzen» direlako bultzatzen direla uste du ▶ 4-5



Luis Mari Mujika idazle lizartzarra. JON URBE / ARGAZKI-PRESS

EGOITZ ZALAKAIN ▶
TRIATLETA

«Hawaiko Ironmana egin nahi dut»

Munduko Triatloi Txapelketan
4. postua lortu du ▶ 6

37. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

Norvegiako Schola Cantorum taldeak irabazi du 37. Abesbatza Lehiaketa

2006an herrian izango den Europako Sari Nagusia Tolosa ordezkatu du talde norvegiarrak; aldaketak izan arren, antolatzaileak gustura azaldu dira aurtengo edizioak eman duenarekin

I. GARCIA - I. TERRADILLOS

Norvegiako Schola Cantorum abesbatzak irabazi du Tolosako 37. Abesbatza Lehiaketa. Ondorioz, talde hori ariko da onenen artean datorren urteko ekainaren 18an Tolosan bertan izango den Europako Abesbatza Lehiaketan. Koruko zuzendariak, Tome Bianca Dahlek jaso zuen Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik Gipuzkoako Kutxak urtero banatzen duen Kutxa Sari Nagusia —2.000 euro, garaikurra eta txapela—, eta Europako Sari Nagusirako izendapena.

Baina ez zen hori izan norvegiarrek jaso zuten sari bakarra; izan ere, euskal kantu bat ongien interpretatzeari saria, ahots nahasietan polifonian eta ahots nahasietan folklorea ere beraiek eskuratutako baitzituzten. Hala, horien emanaldiak Usabal kiroldegira gerturatuakoen gustuko ziren seinale, txalo zaparrada galanta jaso zuten agerraldia egin zutenetan. Ezin esan, hala ere, txalo guztiak eurek jaso zituztenik. Alemaniako Calmus Vocal Ensemble boskotearen interpretazioak ere ikusleak gogoko zituela argi geratu baitzen atzokoan. Eta hauek ere ez dira Tolosatik esku hutsik joan, izan ere, ikus-entzulearen saria eskuratzeaz gain, ahots taldeetan musika profanoan eta ahots taldeetan musika sakran lehen postuan geratu baitira. Bestalde, haur abesbatzetan, Newfoundland Symphony Youth kanadarrak izan dira garaileak. Aipatzekoa azken horien saioa, taula gainera igotzeko modu bitxiagatik eta interpretatzeko era bereziagatik.



Usabal kirolgunean izan da aurten Tolosako Abesbatza Lehiaketa, eta antolatzaileak gustura azaldu dira lortutako emaitzekin. IMANOL GARCIA



Newfoundland Symphony Youth, atzo. IMANOL GARCIA



Alemaniako Calmus Vocal Ensemble. IMANOL GARCIA

Berezitasuna ere, aurtengo edizioak zekarrena, besteak beste kokapen berriagatik, baina gustura gelditu direla azaldu dute antolatzaileek lehiaketak eman duenarekin. «Hasieran beldurra genuen leku aldaketa zela eta, baina nahiko ondo ateratu da», azaldu dio HITZARI Imanol Aramendik, antolakuntza taldeko kideak. «Eguraldiak ere lagundu egin digu, beraz, aldaketa ez da nabaritu, eta zerbaitetan nabaritu bada, hoberako izan da».

Abesbatzen mailaren aldetik zeuden kezka ez zutela oinarrikerik zehaztu du Aramendik: «Hasieran norbaitek esaten zuen aurten transizioko edizioa izango zela eta nire ustez nabari geratu da ez dela horrela izan, maila oso altua izan baita». Usabal kiroldegian egin-



37. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

gizarte ekintza

kultura

Babesle Ofiziala

SAILKAPENA ▶

IKUS-ENTZULEAREN SARIA
Calmus Vocal Ensemble
(Alemania).

EUSKAL KANTU BAT ONGIEN INTERPRETATZEARI SARIA
Schola Cantorum (Norvegia)
Xabier Sarasolaren
Neskatx'ederra obraren interpretazioagatik.

AHOTTS TALDEAK
▶ **Musika Profanoa.**

1. Calmus Vocal Ensemble (Alemania).
 2. Mara Vokalensemble (Suedia).
 3. The Tudor Consort (Zelanda Berria).
- ▶ **Musika Sakra.**
1. Calmus Vocal Ensemble (Alemania).
 2. Mara Vokalensemble (Suedia).
 3. The Tudor Consort (Zelanda Berria).

HAUR ABESBATZAK

1. Newfoundland Symphony Youth (Kanada).
2. Miraculum Children's Choir (Hungaria).
3. San Cugat (Katalunia).

AHOTTS NAHASIAK
▶ **Polifonia.**

1. Schola Cantorum (Norvegia).
2. Molto Cantabile (Suitza).
3. Coro Misto (Danimarka).

▶ **Folklore.**

1. Schola Cantorum (Norvegia).
2. Coro Misto (Danimarka).
3. Coro Universitario de San Juan (Argentina).

KUXA SARI NAGUSIA
Schola Cantorum (Norvegia).

dako beroaz abeslariak ez dira kexatu azaldu zuen antolakuntzako kideak. «Tolosako herrigunean ez izatea zen beste eronka, baina pentsatu baino entzule gehiago etorri dira. Jendeak inoiz baino hobeto erantzun du, bereziki motibata egon da». Aramendik azpimarratu nahi izan zuen baita ere astelehen gauean San Frantzisko elizan izandako kontzertu berezia: «Jendez beteta egon zen eta primerako kontzertua izan zen». Enrique Azurza epaimahai-ko buruak ere bat egin zuen antolatzailerkin: «Oso edizio polita izan da. Oso maila ona izan da abesbatzen artean, niretzako bereziki ahots taldeetan».

Aurtengo Abesbatzak, beraz, agurtu du Tolosa datorren urtera arte. Orduan, ohikoaz gain Europako Sari Nagusia ere hartuko du herriak.

TOME BIANCA DAHL ▶ NORVEGIAKO SCHOLA CANTORUM ABESBATZAKO ZUZENDARIA

«Atsegina da euskaraz abestea, oso hizkuntza musikala da»

Oso gustura zegoen Tome Bianca Dahl. Ez da gutxigorako bere abesbatzarekin lehiaketako Sari Nagusia irabazteaz gain, beste hiru txapela ere jantzi baizikioten ekitaldian.

Zein da Abesbatza Lehiaketatik jaso duzun inpresio orokorra?

Oso famatua da Norwegian Tolosako Abesbatza Lehiaketa, eta Europako Lehiaketetatik hoberenetakoa dela uste da. Eta oso ondo dago antolatuta, eta gustura egon gara.

Zergatik egiten dituzte hain emaitza onak Norvegiatik etorritako abesbatzek?

Ez dakit. Agian bihotzetik gus-tatzen zaigulako abestea: entzulegoari interpretazio tekniko bako bako zerbait gehiago ematea gustatzen zaigu, euskaldunek bezala.

Nola prestatu dituzue euskarazko abestiak?

Kasete bat jaso genuen abestien grabazioarekin. Entzun genituen eta antolatzailer laguntza ere jaso genuen. Ez da hain

zaila, baina hitz asko dira gogoratzen. Atsegina da euskaraz abestea, oso hizkuntza musikala da. Ahoskatzeko hitz goxoak dira.

Zergatik aukeratu zenuten Sarasolaren 'Neskatxa ederra'?

Oso abesti polita da. **Datorren urtean berriz izango zarete hemen, Europako Sari Nagusian, hain zuzen, Tolosa ordezkatzeko.**

Prestatzen hasi beharko gara. Ziragarria izango da maila handiko abesbatzekin lehiatzea eta baita gogorra ere.

Nola egiten duzue lan?

Abesbatzaren erdiak edo ditu musika ikasketak. Bestalde, oso zaila da abesbatzetan abestu nahi duten gizonetakoak topatzea Norvegian. Horregatik, taldekoak ez diren gizonetako batzuk hartu behar izaten ditugu eta normalean ez dira musika ikasitakoak.

Nolakoa izan da zuen egonaldia?

Gustura egon gara. Orain Do-



I. TERRADILLOS

nostian jateke batean euskal sukaldaritza dastatu nahi dugu.

Nola ospatuko duzue saria? Lehiaketaren ondoren Borjara (Espainia) goaz. Han mintegi batean hartu behar dugu parte eta kontzertu bat eman behar dugu. Bertan ospatuko dugula pentsatzen dut.

Diskorik grabatuko al duzue? Dagoeneko bi disko grabatu ditugu eta laster beste bat grabatuko dugu.

Nolakoa da Tolosako entzulegoa?

Bihotz berokoak dira: ikusten da benetan estimatzen dutela beraietzat abesten duzula eta ez soilik beraien aurrean. ◀



Presoen eskubideak bermatzea eskatu dute

Erredakzioa ▶ Usabal kiroldegia kanpoaldean, Abesbatza Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia hasi aurretik, presoen eskubideak betetzea eta Euskal Herriratzea eskatu zuten. Halaber, eskualdeko presoen buruzko txostena eman zioten Juan Jose Ibarretxe lehendakariari —argaz-

kian—, Jose Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Ahalduen Nagusiari eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateari. Bestalde, herenegun eta atzo kontzentrazioak egin zituzten Soriako espetxean urkatuta azaldu den Jose Anjel Altzurguren preso politikoaren heriotza salatuko. I. GARCIA

IRITZIA ▶ MIGEL ZEBERIO



Lehiaketa herriarentzat

Kirok Hiri berriaren liluraz gogoangarri bihurtu den 2005 urterari dagokion Abesbatza Lehiaketa amaitu da. Eungo gizarte konsumitzailearen eruduan *Mens sana in corpore sano* esaerak lekuri badu, horrelako kultur antolamendu bikainek eta erakuntza faraoonikoen zerbaitetan laguntzerik izango ahal dute? Ezin ahanzt, lehiaketaren egitura Tolosako Ekinbidearen esku izanik, herriak berak, Udalaren eskutik ardura eta apustu sendoa egiten duela urte urte lehiaketaren baliabide eta antolamenduen sostenguan. Berresten dut lerro hauetatik joan den egunean esandakoa; Garai polita litzateke, herritarrek lehiaketari gehiago hurbilazteko formula eta bideak jorratzeko baliabide gehiago jartzea!

Haurren emanaldiak, bere kondizioagatik, eta amaiera ekitaldiak sona eta solemnitate ponpoxoagatik erakartzen dute bereziki jendearen arreta. Txertatu dezagun lehiaketa herrian eta herritarrek lehiaketan! Hurrengo hitzordua, herri erdian eta ez nolana hiko areto pixpirrinean ospatuko dugu. Leidor berriaren garai berriak jarretan eta helburretan ere berritu gaitzala. Lor dezagun XXI. mendeko giza-kia eta tolosarraren neurriko jaialdia.

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Furgoneta. Furgoneta salgai. Nissan Serena (1995koa). 1,50eko ohearekin. 3.000 euro. 658 75 76 99.

LANA
Iturgintza. Iturgintza, berokuntza eta gas lanetarako langilea behar da. Deitu 656 41 68 08 zenbakira.

GALDUTAKOAK
Txamarra. Herenegun Tolosako Nafarroa etorbidearen inguruan haur txamarra bat aurkitu zen. Galdutuenak dei dezala 665 73 42 27 zenbakira.

LUIS MARI MUJIKA > IDAZLEA

«Kate komertzialean sartzen ez bada, jai du idazleak»

Poeta, idazlea, hizkuntzalaria, euskaltzalea, unibertsitateko irakaslea... Gaztetatik dabil euskararekin eta Euskal Herriaren etorkizunarekin kezkatuta; baina egun baikor begiratzen dio etorkizunari: «Duela 40 urte ez nizun gauza bera esango»

INAKI PETXARRAMAN / BERRIA

Luis Mari Mujika Idazlea. Donostiako Irakasle Eskolan ematen ditu klaseak. Berriki bazi dute 2005-2006 ikasturtea, eta kanpoan udako eguraldia bada ere, mugimendu handia sumatzen da, dagoeneko, haultasun...



JON URIBE / ARGAZKI PRESS

Bai, oso 2.iek uste duten baldin askoz ere lasrago. Orain ere oso larru dagoela iruditzen zait. Baina asko egin dugu: prestigia irabazi du, eta lan hura beharrezkoa izan zen orduan. Poeta bati, herri eta landu duzu. Badirudi ez direla poesiarako garaia gaur egungoak...

gista eta esentzialista zen. Nik han esentzialismo horretatik edan nuen, eta nire lehen poesietan ageri da eragin hori. Salto handi samarra, hala ere, Lizartatik Erromara, ezta? Bai, ikaragarria. Baina, nahiz eta hirietan bizi, nekazari giro hori konstante bat izan da nire lanetan...

tzaitzen euskaltzalesatua, euskarariko konpromisoa? Ez, lehenago banuen. Ez naiz gogoratzen noiz, baina lagunekin izango zen, seminarioan, 16 urterekin. Orduan egin nuen lehen poesia, eta irabazi nuen. Orve zegoen epale, pentsa, 1956an, euskara erabaz zigorria, desegina zegoen garaian. Egin da eta sirtu behar dut etxetik ez nuela euskaltzalesatuen jaso...

nera, han genuen udako etxean. Nik asko irakurtzen nintzen italiar eta, batez ere, espainiar idazleak (Machado, Juan Ramón Jimenez...). Eta horien simbolismoa dago sartuta, Teilhard de Chardinen teologiarik batera. Oso iraultzailea zen. Hala ere, nik hasieratik nahiko garbi nuen euskaraz idazti nahi nuenia. Euskararen baturaren inguruko eztabaidak harrapatu zintuen gero, bete-betean...

Basolen mugimenduan ere jardun zinen, buru-belarri. Bai, lehenengo federazio hartan sartu nintzen. Gipuzkoako mugimenduan batez ere, bete-betean, 1968tik 1974ra. Ez zegoen garirik egotetik. Gara hartan euskaraz oso larru ikusten zenuen, eta zera...

Ikusten nuelako. Eztabaidak eta ikampek izan nintzen, hainbat gurek eskien ondareko beren seme-alabek h-rik ez jarzteko arrazoia badu gureak duela, zeren hizkuntza eromarikoa f-a dute, eta gaiterriak f-a h bilakatzen du (ferro, hie; ro, forma; hormiga). Hori euskaratik da, gascoieraren kasuan bezala. Hainbeste hamarkada pasatu ondoren, nola izan duzu prozesu hori? Zer modus eraman da? Uste dut gogor eraman dela, baina hala egin behar zela, bestela ez balakem ezar lortu, jauntxoak, euskaldun...

Baina gaur egun beste jorra da nagusi. Bai, uste dut errotasunaz dela hori, neurri handitan batean. Zeren eta gure hizkuntza baliabide eta erraztasun handiak ematen ditu errima eta neurria erabiltzeko. Batek beti librean eginen dute, eta ondo iruditzen zait, baina errotasun jorrua horiek kritikari agerri nahi...

Bertsolaritza erabilien dira neurri eta errima. Zuk bertsolaritzaren inguruko kritika garrantzirik adierazi dituzu: esaterako, euskararen alde poeta izan zinen. Baina zer nabigatu duzu, poesia edo prosa? Nire hurria poesia da, baxez ere Egin da hiru edo lau nobleza laren sariak jaso nituela, eta horrek animatu rinduela. Errealismo magikorena bidea da Celaiaren erruralismoa jorrua nintzen...

Hego Ameriketako errealis-mo magiko... Bai, Asko gustatzen zait Gabriel Garcia Marquez, esaterako. Nola ikusten duzu euskal literaturaz? Lehengo aldean, ongi jakina. 400 urtean 16 liburu inguru egin zinen, eta gaur egun, urtebetean 1.500-1.600 inguru egin ditugu. Euskal Herria bizi dela esan behar dugu, gure neru, literatura gora egin du, baina murriztu bat ikusten da. Bi egitte besterik ez dago. Apatxak eta Lerundi. Beste hitz kontu ezazu, eta kritika gutxi horiek artu da, eta beste bat hori gurea dira, erdi-antzerkiak, hala moduz. Uste dut alferkeria izugarria dagoela kritika saillean, eta horrek pobrezia eta errotismoismo ikaragarria ekartzen duela. Horren morroi eta zerbiztat jende asko dago, eta horren mendean ere bai. Eta irakurri ere gutxi eginen dugu, ezta?

Bai, baina noiz izan dira poesiarako garaia? Poesia simbolismoaren bidetik landu nuen hasieran, simbolismo surrealista jo nuen pikturak. Urdin eta Zurri liburuen batez ere. Hitzak ebakitzean, Zortzikoa hartuz eta Herria eta Hobeak buruz, batez ere, gure herriaren borrokaren dramatizazio metafisiko sursalasta dago garbi emanda. Orduan asumituta zeuden gure herriaren borroka, lehenengo ETarena ere bai. Eta hor azaltzen dira, dramatizazio moduan. Gogor nuen Garcia Lorcaen eta, batez ere, Hernandeen metafisikoa. Euskarako prosalarik bat, Abaga, baina parte bat, ez osoa. Euskozaindia. Goraberak goraberak, hizkuntzarentzat...

turaltasuna eta bat-batekotasa dauka, eta gaur egun, jasoa denez, batzuetan freskotasa fala zaito behar bada. Narratibari eta prosari ere jardun zara. Baina zer nabigatu duzu, poesia edo prosa? Nire hurria poesia da, baxez ere Egin da hiru edo lau nobleza laren sariak jaso nituela, eta horrek animatu rinduela. Errealismo magikorena bidea da Celaiaren erruralismoa jorrua nintzen...

DI-DA BATEAN >

Jon Mirande, Herederokoa abertzaleatzen ofizialerakoa. Esteta. Lizardi. Esteta, baina guk uste baina klasizistagoa. Txillardegik, Gizon jatorra, esentzialista. Egiala eta Euskal Herria malle izan duena, erle antropologikokultural gisa politiko baino gehiago. Poeta bat, Juan Mari Lekuona.



Mujika, JON URIBE / ARGAZKI PRESS

onargarria izan den erakurria. tza. Orduan liburuak gertakio zarrizko pintura bezala; margo bat egin duzu, eta ale bat saltzen. Egiten baduzu, zure kariozei eta behar animoak liburu bat sortzen joan zintezke, baina bestela... Baidu eta halako sasiakite komertzialen sartzen ez bazara, jai duzu. Baina bultzatzen diren idazle horiek ere izango duite zer-baiti kalitatea, besteak beste. Nire ustez, kate horietan sartzen diren idazle horiek ere izango duite zer-baiti kalitatea, besteak beste. Nire ustez, kate horietan sartzen diren idazle horiek ere izango duite zer-baiti kalitatea, besteak beste. Nire ustez, kate horietan sartzen diren idazle horiek ere izango duite zer-baiti kalitatea, besteak beste.

onargarria izan den erakurria. tza. Orduan liburuak gertakio zarrizko pintura bezala; margo bat egin duzu, eta ale bat saltzen. Egiten baduzu, zure kariozei eta behar animoak liburu bat sortzen joan zintezke, baina bestela... Baidu eta halako sasiakite komertzialen sartzen ez bazara, jai duzu. Baina bultzatzen diren idazle horiek ere izango duite zer-baiti kalitatea, besteak beste. Nire ustez, kate horietan sartzen diren idazle horiek ere izango duite zer-baiti kalitatea, besteak beste. Nire ustez, kate horietan sartzen diren idazle horiek ere izango duite zer-baiti kalitatea, besteak beste.

gatzelania, gaskoa, aragorera... Eta eskerrak euskarak hainbat urte zituen, bestela, zelta galdu zerean bezala, emirisi hizkuntza trakets bilakatu zen eta hizkuntza ebarri gisa hilko. Horren ondorian herri jaintza handia dago, ezta? Bai, eta herri hau guk uste baina gutxiago egin dela bakarria, nahiz eta hizkuntza erromaniako ez izan. Horrek lexikoa bakarrik eragin du, zeren eta morfologia eta gramatika, garbi, latinaren aurrekoak dira. Politika ere gertuak jarraitu izan duzu. Pentzen duz gertuak jarraituko duzala oraindik ere. Baitorra naiz, eta kritiko ere bai. Gaztelarrak hiper-nazionalistak dira. Ez dute onartu bere lurraldeen ez beste etiponik, ez beste hizkuntzarik... Arabiarrek 800 urte egin ziren, eta arabiera ez da non izu egiten, eta hasien etiponak galduta egin zen. Aldiz, arabiarrek Baskanetara joan ziren, eta Albania, esaterako, musulmana da ia osoirik, eta Bosnia, berdin-tsu. Kataluniko estatutuarekin eginen ari direna horren isla da, espainiar nazionalismoak ez du onartuko. Eta gurea ez ere. Hainek hiper-nazionalistak dira, imperialistak. 400 milioi hituz dituztenak Ameriketaren zeuden hizkuntza emendindar gutxiak hil zituzelako. Eta ez dute horren kontzientziarik, baina gogoratu behar zait.

ANOETA > Alkartasuna bititiko tabernaren inaugurazioa

18:30an, elkarteko lehenekariaren hitzaldian ondoren lurcha-izango da

ERREDAKZIOA

Anoetako Alkartasuna Bititiko Tabernaren inaugurazioa egingo dute gaur arratsaldean. 18:30ean Manuel Odirozoa lehenekariak hitzaldi labur bat eskainiko du eta ondoren lurcha-izango du. Bihartik martxo jarriko da taberna, lanean gurean. 06:30etik 21:00etara eta iganetean 17:00etik 20:30era. Bestalde, elkartearen urteurrena ospatzen den Milagrosa Eguneko baskarriko izena eman daitake, egunerok 18:00ak eta 19:30ak bitarte.

TELEFONOAK >

- Lariarikak ((112)) Osasuna. Angialdea. Osasun z. 653212. Anoeta-Albiz-Hernialde. Medikua: 65 23 39. Ateasau. Medikua: 692423. Balarriak. Medikua: 889003. Berategi-Elduain. Medikua: 683361. Bidegipoi. Medikua: 681134. Burrealdia. Osasun etxea: 672411. Haztegia. Medikua: 653329. Inura. Osasun zentroa: 690720. Leizua. Osasun z. 948 50800. Orendain. Medikua: 655995. Orea. Medikua: 682228. Tolosa. Anabulakoria, larriald 461111. San Eskabean. 068080. Amurrio artoa: 066900. Amurrio dizein: 672637. Amurrio-Merka 675799-67 53 90 (larrialdak). DYA 672536. Gurea Gurea 674268. Villanosa. Anbulak. 066970. Zuzurk. Autondo zerb. 693930. Garrantzak. Berriz. 902 24 02 02. Donostialko autobus: 36170. Tolosaldea bus: 650621. Leizua: Anbulak. 948 220105. Teka: 670420. Teka (Luzia): 608 873066. Besterik. Euzatia: 538820. Tolosa-Urdazurrak: 675858. Tolaga: 650016. Larremendi egizita: 670325. Tolosa giza: 675320.

hilberriak, urteurrenak, eskertzak. Gipuzkoan 50.000 etxetara. ESKALAK 19:00ak hartzen dira. Telf.: 943 65 56 95. tolosaldean@tolosaldeko hitza.info. HITZA guztien prezio beragotik.

EGOITZ ZALAKAIN ▶ TRIATLETA

IÑIGO ASENSIO

Munduko Triatloi Txapelketan 4. izan da 25 urteko tolosarra. Txiki-txikitatik aritu da kirol munduan murgilduta, baina orain dela sei bat urte hasi zen triatloian. Poliki-poliki gora egin du tolosar honek, azken lorpen honekin bere palmare-sa borobiltzeko. Lorturikoaz haratago, kirolarekiko duen jarreraz aritu da solasean HITZArekin Egoitz Zalakain triatleta.

Oso txikia zinela hasi zinen kirolean.

Bai egia da. 5 urte nituela hasi nintzen patinatzen, eta ia adin berarekin eskiatzen ere hasi nintzen. Aurrerago, 12 urterekin atletismoa probatzea erabaki nuen; triatloia beranduago heldu zen.

Nola eta zergatik triatloiera-ko saltoa?

Ikastola amaitzean Arrasatera joan nintzen ingeniari-tza elektronikoa ikastera, eta bertako lagun bat triatloian aritzen zen. Berarekin hasi nintzen, hasieran neguko triatloia egiten, hau da, eskia, bizikleta eta korrika egiten, eta gerora triatloi arrunta praktikatzeko, eskia ordez igeri eginez. Patinaia baino gustukoago nuela ikusi nuen eta horregatik aldatzea erabaki nuen.

Horiek beste garai batzuk ziren, baina orain, ikasketak amaituta eta lanean ari zarela, ez al da zaila entrenatzeko denbora bilatzea?

Guztia gogoaren araberakoa da. Batzutan, goizez lanera joan aurretik igeri egiten dut, eguerdian korri, eta arratsaldean lanetik ateratzean bizikleta. Baina ez beti, normalean bi kirol egiten ditut egunean.

Zenbat denboraz aritzen zara egunean entrenatzen?

3 edo 4 ordu inguru aritzen naiz. Nire prestatzaileak, Ra-

«Hawaiko Ironmana egitea gustatuko litzaidake»

Munduko Triatloi Txapelketan 4. postua lortzearekin «benetan gustura» geratu zela dio 25 urteko tolosarrak

mon Elkorok, erabakitzen duenaren arabera. Egunean bi kirol egiten saiatzen naiz, bat asko landu eta bestea lasaigo hartuz.

Eta denboraldiak zenbat irauten du zuretzat?

Niri ez zait gehiegi lehiatzea gustatzen, entrenatzea nahia-ko izaten dut. Hala ere, maiatzetik uztaile bitartean aritu nahiz aurten astebururo; gero aseden hartu eta Munduko Txapelketarako prestatzen hasi nintzen.

Nola lortu zenuen Danimarkara joateko sailkatzea?

Federakuntzak irizpide batzuk ezartzen ditu bertara joateko eta nik irizpide horiek betetzen nituen. Guztira, estatu osoko 15 kirolarik hartu genuen parte Munduko Txapelketan.

Kontaiguzu nola izan den hura.

Abuztuaren amaieran joan ginen Danimarkara; Fredericia-ra hain zuzen ere, eta bi astez egon ginen han. Lehena lasterketa prestatzen pasatu genuen eta bigarrena turismoa egiten. Bertan profesionalen lasterketa zegoen alde batetik, eta profesionalak ez garenon artean, 5 urteko mailatan banatzen gara. Nik nire mailan 4. postua lortu nuen. Benetan gustura geratu nintzen bertan egindako lasterketarekin.

Nolakoa zen zure proba?

4 kilometro egin genituen igerian, 120 kilometro bizikletan



HITZA

eta 30 kilometro korrika. 6 ordu eta 11 minututan.

Ikaragarri gogorra izan behar du, ezta?

Gogorra da, noski. Lehiaketaren ostean turismoa egiten aritu ginen astebetetz eta neke nabarmena zen. Lasterketan konzentratuta zoaz, eta, agian, daukazu indarra baino gehiago ematen duzu. Nik Akilesten tendoia minduta izan dut eta ez naiz nahiko entrenatu korrika. Lasterketan gustura nindoan eta gogoz aritu nintzen baina gerora entrenamendu falta nabaritu nuen. Aste guztia leher eginda pasatu nuen. Hala ere, merezi duela iruditzen zait; gustuko dudalako ari naiz.

Horren ostean, nola ikusten

duzu profesioleatzen aritze-ko aukera?

Profesioleatara pasatzea benetan zaila da, baina nik ez dut pasatzeko gogorik. Triatloira bete-betean dedikatzeke, beka olimpiko bat lortu behar da eta zaila da. Espainian zortzi bat triatleta egongo dira egoera horretan. Nik nahiago dut lan egin eta ahal dudana bitartean nire kontura aritu. Triatloierekin, konpetitzen ari zaren bitartean bizi zaitezke, baina uzten duzunean zer? Ez da nire helburua; nahiago dut nabilen moduan jarraitu.

Zein dira orain, etorikizunera begira, dituzun asmoak?

Oraitxe ez daukat garbi zenbat denbora jarraituko dudan

PROBA

«4 kilometro egin genituen igerian, 120 kilometro bizikletan eta 30 kilometro korrika, 6 ordu eta 11 minututan»

ENTRENAMENDUAK

«Goizez lanera joan aurretik igeri egiten dut, eguerdian korri, eta arratsaldean, lanetik ateratzean, bizikleta»

ETORKIZUNA

«Baliteke hau maila honetan jarraitzen dudana azken urtea izatea, dagoeneko nekatuta nago»

erritmo honekin. Hurrengo urtean Hawaiko Ironmana egin nahi dut. Nire taldeak, Athletico San Sebastian-ek zein aukera dituen ikusi beharko, baina han egoteko prestatuko naiz aurten. Baliteke maila honetan jarraitzen dudana azken urtea izatea, jada nekatuta nago. Gero lasaigo ibiliko naiz.

Ironman proban distantzia handiagoei egin beharko diezu aurre, ezta?

Igerian ez da alderik, baina bizikletan 180 kilometro dira eta korrika 42. Munduko Txapelketako proba amaitzean 10 kilometro gehiago korrika aritu behar izan banu... Dudarik gabe gogorra izango da. Hain 9 ordu-tatik jaistea oso denbora ona da, beraz, esfortzuen iraupena askoz handiagoa izango da. Prestaketa berezia eskatuko du baina bertan aritzeko gogoak daukat.

iragarki laburrak ▶



Aduna. 608 m²-ko pabilioia alokeran, garabi-zubiarekin, bulegoak eraikita dituena. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Albiztur. Berrikuntza behar duen

baserria, 200 m²-ko solairutik berezita, hiru solairu, 35.000 m²-ko lur-saila. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Andoain. Berritutako etxebizitza altua, ikuspegi bikainak, igogailua eta terrazan solariumarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Anoeta. Estreinatzeko, etxebizitza duplexean, 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde, terraza eta garajea aukeran. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Asteasu. 2 solairuko pabilioia salgai edo alokeran, 1050 m² eta 250 m²-ko solairu-arte, modu guztietako tresnekin eta hobekuntzekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Beasain. 45 m² erabilgarriko apartamentua eta lokal komertziala

salgai. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berastegi. 100 m²-ko bi solairuko borda, berrikuntza behararekin, 75.000 m²-ko lur-sailak, 35 eta 50 urtetako alertze-pinuarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 100 m²-ko etxebizitza, berrituta. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza salgai, planta baxuan. Berritua. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Bidanía. Erantsitako azken baxeta, eraikitako 160 m². Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Donostia. Saguesen, 70 m²-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiarekin. Telf.:

943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Legorreta. 3 hektareako lur-saila, sarrera onarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Lizartza. Eraikuntza berriko 14.000 m² pabilioi salgai, 920 m²-ko azken moduluak. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza, berritua. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m²-koa. Kanpoaldera, igogailuarekin eta trastelekuarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Apataerrekian, duplex berritua, garajearekin eta lur-sailarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituriko etxebizitza salgai. Berritua, 3 edo 4 logelatako aukera. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, 150 m²-ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean azken apartamentua, eraikuntza berrikoa, 65 m² erabilgarriak. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Alokerako etxebizitza ere baditugu. Bulegoan norbanakoarentzat informazioa.

Segura. Eraikitzen ari diren erantsitako 14 bila, 297.500 eurotik hasita. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

IBARRA ▶ MENDIA

IÑIGO ASENSIO

Alpamayo gailurrean

'Directa Francesa' bidetik mendia igo duten mendizale gazteenak dira Beñat eta Aitzol Doyharzabal anaia ibartarrak

Doyharzabal anaia abentura berri batean aritu ziren abuztuan. Beren lanetan oporrak eskatu eta Perura joan ziren hiru astetarako, bertako klimara egokitu, bost mila metroko pare bat menditan trebatzen joan eta azkenean Alpamayo mendira igotzeko. Guztiak, lerro gutxi hauetan kontatuz gero, lan erraza dirudi, baina ibartarrek gogoz egin behar izan zuten lan gailurra lortzeko.

20 urte ditu Beñatek, 23 Aitzolek; biak gazte-gaztetatik ibili dira elkarrekin mendian eta Perura ere elkarrekin joatea erabaki zuten, noski. Aitzolentzat 3. aldia zen Perura zihola, Beñatek lehen aldiz zapaldu zuten herrialde hegoamerikarra, baina biak ere bikain aritu ziren Mendikate Zuriko elurretan. «Abuztuan negua da Perun, elur gogorra aurkitzeko garai onena da, eta, gainera, prezipitazio gutxieneko urtaroa da», dio Aitzolek. Bertara iristen ezin da bat-batean mendira igotzen hasi, bestela «mendiko gaitza jasaten duzu nahitaez», eta horregatik egokitzapen denbora bat utzi behar izan zuten. «Bi astetan aritu ginen lan horietan; egokitu eta bost mila metro inguruko bi mendi igotzen. Oinez igotzeko moduko mendiak ziren eta horregatik bereziki egokiak ziren gorputza altuerara ohitzen joateko», aipatu zuen anaia zaharrenak. Lehen bi asteetan, beraz, mendi horietan gorputza probatzen aritu ziren, eta hirugarren aste osoa Alpamayo mendira igotzen pasatu zuten. Hala ere, zailtasunak ere topatu zituzten Alpamayo bidean. «Gehien erabiltzen den igoeraren gainaldean elur bolo handi bat zegoen, eta hura erortzeko

arriak handia zen. Bertatik igotzen gero, gidek bidea prestatzen dute eta lana asko errazten dute. Jende asko igotzen da bide horretatik baina igotzea ezinezkoa zenez, *Directa Francesa* bidetik igo behar zen, askoz zailagoa izan zelarik», gaineratu zuen Aitzolek. Giden etxean galdetu zutenean ez zeukat erregistrorik, baina ia dudarik gabe, bertatik igotzen mendizale gazteenak zirela esan zieten Doyharzabal anaiei. «Ez da zuzenean jarraitzen duzun helburua baina ilusioa egiten du horrelako bide bat egin duen gazteena zarela jakiteak», dio Doyharzabaletan gazteenak.

«Lehenengo etapa, oinarriko kanpalekuraino, bi egunetan egiten da. Guk izugarrizko paliza hartuta egun batean egin genuen, baina normala bi egunetan egitea da. Beste bi egun behar dira goiko kanpalekuraino, 5.400 metrotaraino, eta handik gailurrera igotzea gertzen da, 600 bat metroko tartea. Ez da distantzia luzea, baina oso ibilibide teknikoa da, eta denbora luzea eramaten du», dio Beñatek. Goizeko ordu bietan martxan jarri ziren, goiko kanpalekutik tontorrera bidean. Hamaikak eta erdiak aldera iritsi ziren puntara eta atseden handirik hartu gabe behar bidea hartu behar izan zuten. «Ezin duzu bertan denbora gehiegi pasatu. Gu igotzean ez zuten eguzkiak jotzen, baina gora iristean berotzen hasi zuten eta gainalde guztia oso arriskutsu dago, ezin zara ber-



Hamar ordu azken paretan aritu ondoren, eguerdian lortu zuten gailurra zapaltzea Aitzol eta Beñat Doyharzabal anaiek. HITZA

tan denbora gehiegi egon, elurra urtzen hasten delako. Jais-ten ari ginela izotz zati bat erori zitzaidan bizkarrera; zorabiatuta egon nintzen», aipatu zuen Aitzolek. Gailurretik goiko kanpalekura jaisteko, sei jauzi egin zituzten *rapeleatzen*, 60 metrokoa bakoitza, eta eguerdikoko ordu biak aldera iritsi ziren kanpalekura.

Bertakoekin harremanetan

Bertako jendearekin izandako harremana ere oso betegarria izan da beraiantzat. Perura iristean sukaldari peruar bat kontratatu zuten, Aitzolek duela bi urte hara joatean ezagutu zuten. Haren inguruan egin zuten bizitza Huaraz hirian zirenean. Gerora, mendira joatean, hainbat herrixkatatik pasatu zirela

egiten genuen». Inguruko herrietan lapurretak izan ziren egun haietan, eta ibartarrek ezagun hauen etxean gorde zituzten mendira eramango ez zituzten gauzak. «Bertan euskaldunei oso tratu ona ematen zaigu, seguraski urteetan zehar euskaldun asko ibili delako lurralde haietatik», gaineratu du Beñatek.

Honelako proiektu bat aurrera eramateko ez dute laguntza gehiegirik aurkitu. «Aralar Kirolak-en materialarekin lagundu digute, baina hortik aurrera gastu guztiak gure patrikatik ordaindu ditugu», diote ibartarrek. Perura iristeko ahalik eta hegazkin merkeena lortu zuten, eta behin bertan zirela osatu batean lo egin zuten. Ostatuan bi gau pasatu ondoren asbeterako mendira joan ziren. Itzuli eta atseden hartuta berriro mendira jo zuten eta azken astean, pare bat egunetan lasai ibili ondoren, Alpamayorako bideari ekin zitoten. «Guztira sei bat gau besterik ez genituen ostatuan pasatu», dio Aitzolek. Huaraz hiria inguru hartako hiriburua da eta han inguruan dira bailara eta mendikate mordoak. Handik bailaretara taxian joaten ziren, eta ondoren oinarriko kanpalekuraino oinez iristen ziren.

Lortutakoarekin oso pozik badira ere, badituzte etorkizunerako helburu ugari. Hasiera batean Perura itzultzeko asmoa dute ibartarrek. Bertan *Guaiguas* mendikateko tontorren bat zapaldu nahi dute, nahiz eta oraindik ez duten erabaki zein mendi igoko duten. «Askotan bertara iristean erabakitzen dugu zer igoko dugun, ez dugu plan zehatzik eramaten», esan du Beñat Doyharzabalek. Oraingoan, beraz, itxaron egin beharko dugu beren erronka berria ezagutzeko.



600 metroko altuerarekin, tarte teknikoa da azken paretak. HITZA

diote anaiek, eta hauetan jendearekin harremana ere izaten dela. «Gure sukaldariak senideak zituen herri horietako bat zutetan eta haiekin jan eta lo

hitza

txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. John Crowley zuzendariaren *Intermission* filma, Gaztetxean 21:30ean.

Alegia. Argazki Lehiaketako lanak udaldebeko ganbaran 11:00etatik 12:30era eta 19:00etatik 20:30era.

Alegia. 1956an edota 1957an Alegian jaio edo orain Alegian bizi direnen afaria egingo dute azaroaren 12an. Izena emateko, 40 euro sartu 2101 0073 16 0124706508 zenbakian bihar baino lehen, agindu emalearen izena jarri.

Berrobi. Jon Ander Izagirrearen omenezko XVI. Frontenis Txapelketa antolatuta du Begi Gorri elkarteak. Izen-ematea, hilaren 10a baino lehen.

Tolosa. Hilaren 26an Amarozen Kirol Elkartearen festa izango da Ferialekuan. Afarirako izen-ematea 18 eurotan Iratxo, Orbela eta Karlatz (Ibarra) tabernetan eta Errotatxo (Amaroz) okindegian.

Tolosa. Amarozen elkarrekin 4-7 urteko haurrentzat dantza ikastaroa antolatuta du. Izen-ematea, bihar eta hilaren 8an 17:30etik 19:00etara elkartearen egoitzan. Informazio gehiago, 656 739290 telefonoan.

Tolosa. Oargi mendi elkarteak hilaren 7tik 13ra mendi materialeko merkatu txikia antolatuta du. Materiala Oargin (Santa Maria kalea, 4) utz daiteke 20:00etatik 21:00etara. Informazioa, 630 579395 telefonoan.

Tolosa. 0 eta 16 urte arteko haur eta gazteen gurasoen topaketak izango dira ostegunetan 15:00etatik 16:30era Haur Liburutegian azaroa eta maiatza bitarte. Izen-ematea, Udalgazarte Zerbitzuan (943 697460).
Tolosa. Amarozen dantza taldeak euskal dantza ikastaroak antolatuta ditu. Ostegunetan izango dira, 20:30etik 21:30era auzo elkartearen egoitzan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Joan zirenak gogoan

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ Asko eta asko izan ziren atzo, Santu Guztien Egunean, hildakoak gogoan izan, eta hilerrira joan zirenak



Tolosako hilerrian ugariak izan ziren atzokoan jendearen joan-etorriak egun osoan. IMANOL GARCIA



Santu Guztien Egunean ohikoa den bezala, lorez atonduta ziren hilobiak; irudian, Ibarra. IÑIGO TERRADILLOS

I. ETXEBESTE

Santu Guztien Egunean ohikoa izaten da. Eta atzo ere hala izan zen. Eskualdeko herri guztietako hilerrietan handia zen mugimendua goiz-goizetik. Lore koloretsuekin atonduta ziren ordurako hilobi asko eta asko, eta beste batzuk eguerdia aurreko denbora baliatu zuten horretarako.

Egun tristea dela Santu Guztiena. Horixe dugu guztiok beti buruan, behinola gure artetik joan zirenak gogora ekartzek usadioa duelako norbanakoa. Hala ere, oraindik orain adinekoak dira, batez ere, egun horren harira hilerrirako bidea egiten dutenak.

HITZAK ere egin zuen atzo Tolosa, Ibarra eta Villabonara. Joan-etorria autobusean egiteko aukera zuten tolosarrek, kanposantura joateko eta handik erdigunera itzultzeko zerbitzu bereziak jarri zituztelako orduo, ohiko moduan. Eta hara gerturatzean, kazetariaren arretra piztu zuen kartel batek: *Kontuz lapurretekin*. Han ondoan zen udaltzainari galde-tu, eta herritarrak autoa zabalik utzita hilobira loreak uztera joandako tarte horretan lapurretak ohikoak izaten direla jakin zuen.

Baita hilobi bateko lore sorta ostu, eta beste batean jartzen dutela ere. Urtekin urtera gertatzen omen da hori. Ikusten duzue: batzuentzat samina dena besteentzat aukera.

Aurtengoa ez dute gertakizun horien inguruan deus aditu udaltzainek, hala ere. Horixe adierazi zuten, behintzat, Tolosako hilerrir inguruan zirenek.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Garazi Zubeldia (Amezketan).
Gaur 2 urte. Zorionak etxeko guztien, eta batez ere Jonen partetik.



URTE ASKOAN
June eta Naia (Tolosa).
Gaur bi ahizpen urtebetze eguna, 7 eta 6 urte. Zorionak familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak...

zoriontzeko, etorri: HITZAren egoitzara:

Araba etorbidea, 5 beheko - TOLOSA

Udaldebeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!